

**BIZKAIKO INDUSTRIGINTZA XIX MENDERDIAN (1816-1870):
Protoindustrializazioaren azkena eta iraultza industrialaren hastapenak**

J. AGIRREAZKUENAGA IGORRAGA

Azaltzen saiatuko garen gai hau, nahiko zabala iruditzen zaigu orrialde gutxitan adierazteko. Bizkaiko industrigintzaz lan asko burutu dira, baina XIX menderdia ez da ia aztertzen, batzuk 1870. eko urtez geroztik sorturiko abiaduran hasten direlako eta beste batzuek lehen karlistadan ahitzen dutelako beraien ikerlana.

Noiz eta zergatik gihartu zen iraultza industrialia? Nola iragaten da aurreneko industri girotik industrigintza berrira, kapitalista moldekora Bizkaian? ¿Nortzuk ziren ohizko industri eta industri berrien jabeak? ¿Ze mota industri lantzen dute? ¿Zein da langileen kualifikapena? ¿Nolako portaerak agiri dira? Batzuek batipat 1841. eko aduana aldaketa edo Bessemerren inbentoa eta burdinarien esportaketa azpimarratuko dute. Bereiztasun kualitatiboetan, gizartearen antolakunde sozialean, aldiz, dago kakoa, beste baldintzak ukatu gabe. Bizkaiko kasuan iraultza industrialia ez da soil soilik hesparru siderometalurgikoan indartzen, kontsumozko ondasunen industrigintzak ere garrantzia bereizia du. Hain arazo garrantzitsua ulertzeko 1816, 1828, 1832, 1836, 1861, 1870 an burutu ziren estadistika industrialen antzekoak ezagutzea, premiazkoa dugu (1).

(1) Neure eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiet M. Amador Carrandi, M.T. Otazua eta J. Madariagari Gernikako artxiboan hainbat lan egiten daudelako eta batipat XIX mendeko dokumentazio ez ezaguna ateratzen.

Bizkaiko Jaurerriko Artxibo Nagusia. Gernikan. Beheko artxiboa. Diputacion general, 188 erreg.

1816.ekoa: «Respuesta al interrogatorio de la Junta de Aranceles con respecto a Vizcaya» Bilbon 1816.eko abenduaren han sinatua.

1828.ekoa: «Estado demostrativo de las fábricas que existen en el Señorío de Vizcaya con expresión de los artefactos que producen y las demás noticias que el Consulado de Madrid pide a su Diputación General. 1828.ek abenduaren 12an sinatua.

1832.ekoa: «Relación circunstanciada de todas las fábricas existentes en este Señorío de Vizcaya formada por su Diputación general en virtud de la escitación del Sr. Administrador de Rentas del partido de Orduña» 1832.eko maiatzaren 8an Diputazioak sinatua.

1861.ekoa: Guerra de Africa, 62 erreg. «Establecimientos fabriles» «Comisión de repartimiento. Comercio e Industria» izeneko batzordeak sinaturik, Pablo Epalza batzordeko lehendakaria zelarik. Inprimatuak dira, 1836.ekoa: *Guía del Ministerio de la Gobernación del Reino para el presente año de 1836*. Madrid (Imprenta real) 1836, 644-645, o.c.

XIX mendeko lehen herenean Bizkaiko protoindustria kinka larrian amildurik zegoen, geraldian prozesuan itozteko arriskuan, desindustrializazioaren abiaduran azken batetan. Atzerapen teknologikoak eragin handia du egoera honetan. Bizkaiko produktuek ezin dute jadanik Europako merkatuetan iraun, ez baitira konpetitiboak. Merkatu natural bakarra Espainiako erresuma dute baina gobernu politika aranzelarioak oztupoak jartzen dizkie, atzerrikoak balira bezala bereiztuz.

Zati bitan banatuko dugu adierazpen hau: Burdingintza eta bigarrean gainerako industri moetak.

1.—Burdgingintza

Hauxe dugu Bizkaiko industria, aspaldiko mendetan gihartu zena. Nahiko sakon ezagutzen dugu bere bilakabide orokorra, bariabile ekonomikoetan finkaturik, L.M Bilbao eta E. Fernández de Pinedoren bidez (2) Dena dela ikuspuntu orokorraren ondoan beharrezkoa da bilakabide mikroekonomikoan ere abiatzea eta gehiago oraindik, kapitalismo konpetitiboko garaian, gure azterketa burutzen dugunean.

1830an hiru birregiturabide aurkezturik zeuden:

1.— ohizko burdinolen birraldaketa baina dagoeneko azpiegituretik abiatuz, administrazioa, egurrikatzaren kontsumoa eta langileen soldatak nolabait beheratuz, azken produktua merkatzeko. (3)

2.— Britainia Haundiko eredia. 1827an G. González Azaolak Diputazioaren aginduz idatzi zuen txostenean argi eta garbi aldarrikatu zuen proposamen hau. (4)

3.— Britainia Haundiko eredia jarraitu, behin frogatu ondoren ohizko burdinoletan burdin merkeagorik ezin zitekeela atera. Beraz labe garaiak ezarri eta ondoan ohizko oletan erreberberozko labak, zilindrozko makinak eta abar,

1870.ekoa: A. A. (gure ustez ARISTIDES ARTIÑANO, Bizkaiko Jaurerrian, Estadistikaren arduraduna): *Elementos de Geografía astronómica física y política con algún mayor desarrollo en la parte relativa a España y con especialidad en lo que se refiere al Señorío de Vizcaya* Bilbao (Imprenta-Librería A. Emperarle) 1876, 44-45 orr.

(2) BILBAO, L.M., FERNÁNDEZ DE PINEDO E.: «Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional en el País Vasco. 1700-1850» in *La economía española al final del Antiguo régimen*. II Manufacturas. Madrid 1982.

(3) B. J. A.N. Gernikan, Ferrerías, 2 errg. 3 leg., 1 zenb. *Exposición elevada por la comisión de ferrones de Vizcaya a su diputación provincial* Bilbao (imp. y litog. N. Delmas) 1843. 1829.eko urte inguruan hasi ziren esperientziak. Gero Boluetako zuzendari teknikoari Saint de Supery-ri eskatu zitzaion eritzia, baina 1844an ez zetozen bat egindako proposamenean. BJAN: FerreríasI err., 1 leg. 1848an batzorde honek Saint de Supery-ren eritziak ikusirik proposatzen du: «...«lo urgentemente útil sería que sin necesidad de tan grandes trastornos se llevase a la industria actual al estado de mejora posible» BJAN: Hierro extranjero 1 erreg., 1 leg., 2 zenb.

(4) BJAN: Ferrerías, 2 err. 3 leg. Argigarria da ere, autore berdinarena *Hornaguera y hierro*. Paris (Imprenta de David) 1829.

hau da olak bigarren fusioko gune produktiboak bihurtu. Bestalde egurrikatzaren ordezt harri ikatza erabili. (5)

Aukera bakoitzak inplikazio sozial bereziak erakartzen zituen.

Lehen aukera Batzar Nagusietan izendatu zen «olagizonen batzordeak» bultzatuko du batez ere, hau da Bizkaiko olen eta mendien jabegoa zutenek, delako «caballeros-propietarios» edo «the gentry». Liberal moderatuak ideologiaren eusleak izan arren, artisauen formulazio antikapitalistak begi onez ikusiko dituzte eta nire ustez indartu ere bai (6) Ezin dugu ahaztu beraien diru sarrerak, garbientarikoak, basoko egurrikatzaren bidez lortzen zutela (7), 1840-1850. eko hamarkadan olek erabiltzen zuten totxoa erabiltzeko lantegi haundi batzuek eskualde mailan eraikitzea proposatu zuten, hau da Boluetaren lehen aldiaren adibidea jarraituz, (8) Baina frakasatu egin zuten. Dena dela ola batzuek birregituratu ziren Touraingen metodoaren bidez, Orozkon eta Bedia (azken hau J.M. Gortazarrena) edo Gurlten metodoak Amorebietako Astepe, J. J. Jauregirena (9). Hauetan kalitatezko burdina erabiltzen zen eta merkaturatu kuota bat lortu zuten, XX menderarte iraupena lorturik. Hauxe dugu baita ere Usansolako olaren egoera. Kasu hauetan, bada, bai lortu zela ohizko ola eta lantegi modernoaren arteko lotura eta jarraipena. Dena dela, kasu gehienetan lehenagoko olak sutegiak bihurtu ziren ondoren desagertzeko.

Hirugarren aukera neurri haundi batetan, 1830an kokaturik zeuden bigarren fusioko lantegi berrien alde zegoen, hau da burdin totxoa birlandurik, iltzeak, plantzak eta bestelako produktu bukatuak egiten zituzten. Artun-

(5) BJAN, Ferrerías, 2 err., 3 leg. Txostena P.M.N.D.S. inzialekin sinaturik dago, nire ustez P. Novia de Salcedorenak dira. Antzeko eritziak idatzi zituen bere liburuan. Adibidez: «Confiado en su despacho exclusivo en España y América a beneficio de las prohibiciones, descuidaron la aplicación de mejoras por el adelanto de conocimientos, y quedó muy atrás. Es cierto que no ha podido competir su ductilidad y es la única causa que un tanto lo sostiene y hace necesario pero en todo lo que no exija esta propiedad, no puede sufrir ya la concurrencia extranjera». NOVIA DE SALCEDO P.: *Defensa histórica legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipúzcoa*. Bilbao. T. IV 1851, 168 orr.

(6) BILBAO L.M. FERNÁNDEZ DE PINEDO E.-k contenido antikapitalista batez kutsaturik zegoen izkribu bat agertzen dute aipaturiko liburuan 199 orr. Nire ustez ez dira artisauak idatzitakoak, Olagizonen batzordean ez zeuden artisauak, Bizkaiko haundiki batzuek baizik. Beste gauza bat da haundiki hauek beraien interesak defenditzeko artisauak egingo lituzketenak neurri batetan, beraiek adieraztea. B.A.J.N. Hierro extranjero, 2 err., 4 leg.

(7) «... pues como para las mejoras es forzoso que se introduzca la maquinaria y para ponerse al nivel tiene que hacerse uso del vapor, (Además de los ríos) y del carbón de piedras como los dueños de tales herrerías, así como los predominantes del país, lo son igualmente de montes, y obtienen mayor utilidad por el consumo que hacen aquellas que con lo que ellas dan de sí, se creerían perjudicados por la introducción de aquel mineral en la porción más pingüe de su hacienda.». GAMINDE V.L.: *Intereses de Bilbao ecsamen de lo perjudicial que seria la permanencia del sistema foral en el siglo XIX al comercio e industria del país y a los liberales de Vizcaya*. Bilbao (Imp.A. Depont.) 1837, 27-28 orr.

(8) 1854.eko batzar nagusietan, «varios fabricantes de fierro» seguruaski olagizonak proposatu zuten: ...«que por cuenta del país se erija una fábrica de relabro con cilindros, de fierro vizcaíno, a cuyo efecto se prestaba a ceder el local uno de los fabricantes...» *Juntas Generales del M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya*. Bilbao 1854, 114 orr.

(9) *Estadística minera correspondiente al año de 1864* Madrid 1867, 38 orr.

duagako (Basaurin) lantegia dugu lehena. 1807an martxan zegoen eta hasieran badirudi labe garaia ere bazuela, seguru asko itxura zaharreko labe garaia, Lerganes eta La Cavadakoaren (Santanderren) itxura antzekoa (10) Lope Mazarredo Gómez de la Torrena zen, merkataria eta lur jabeduna.

1822an Ramón Mazarredorena, anaia, zelarik, miloi bateko galpenak egin ez porrot egin zuen. Zergatik? Produzitzen zuena salmentarik ez zuelako, gauza askotan herbestekoak merkeagoak baitziren: plantzak, flejeak, iltzeak, balaustreak, burdin bolak, balak, tuberiak eta abar. Urte honetan Gómez de la Torre y nietos izeneko etxe komertziala ere pikutara joan zen, R. Mazarredo partaide zelarik. Lehen lantegi hauek diru kopuru handi bat zirkulante eukitzera beharturik zeuden. (11)

Frabrikako zorrak ordaintzeko itun bat izenpetu zuen, baina urte bigarrean, berriz ere porrot. Oraingoan merezientek lantegiko jectioa kontrolatuko zuten eta lantegia saltzeko ere prest zeuden. Ez dago eroslerik, baina J.I. Minondo Donostiar merkatariak, merezientetariko bat, Artunguagoko parte bat alokatu egiten du bertan fanderia eta sutegi bat montatuz. Hortarako sozio bat hartzen du, F. Belesta, burdingintzan aritua. Iltzeak produzitzeari ekiten diote. Baina Minondok bere zatia beste merkatari bati saltzen dio Quintana izenekoari, Bilbo eta Madrilleko merkataria. Belesta eta Quintanaren artean, atzeritik makinak ekarri eta indarberritze bat ematen diote lantegi honi.

R. Mazarredok erabiltzen zuen zatian 1832an 30 langilek lan egiten zuen zuzenean eta Santanderreko La Cavadako burdin zaharrak, Bizkaiko totxoak eta Inglateratik irixitako burdinak erabiltzen zituen. Ikatza Asturiasekoa zen. Guztira 1,5 miloi erreal inbertiturik zituela adierazten zuen, lehengaiak aparte. Kexa bat idazten du: 1819tik Artunduagako produktuak Gaztelan sartzerakoan zerga bereziak ordaindu behar izaten dituzte, berriz 1827. eko urtez geroztik herbestekoak zerga txikiagoak ordaintzen dituzte.

Quintana eta Belestak, burdina Bizkaiko oletan erosten zutela esaten zuten baina seguru asko Inglaterakoa ere bai. Ikatza Asturiasekoa da, eta guztira 40 bat langile («obreros y oficiales») egunero erabiltzen ditu, garraialariak kontatu gabe. Urtean 750tik 1000 tonelada (15.000-20.000 Gaztelako kintale) moeta guztietako burdinetan produzitzeko ahalmena du. Guztira 600.000 erreal inbertiturik zuten. (12)

Artunduagako makina hauek Nerbioia ibaiko urak eragindako energiari baliatzen ziren.

Ikusten dugunez Artunduagan bakarrik izugarritzko kapazitate produktiboa agiri da, paretuz gero ohizko olen produkzioaz (3.500 tonelada urteko Bizkaia osoan).

(10) BJAN Diputación general 188 erreg.

(11) Bizkaiko artxibo historiko probintziala: Mariano Olea, 3.844. 3.848. 3849.

(12) B.A.H.P. Mariano Olea 3852.

Baina 1828an, Barakaldon ere fanderi bi zeuden: Antonio Juan Vildosolarena Santiago Castaños zuzendaria zela: Artunduagakoan bezala, reberberezko labak, zilindrozko makinak eta sutegiak zituzten. Bizkaiko burdin totxoia eta egurrikatza erabiltzen du, eta moeta guztietako burdinak produzitzeko gai da, baina batipat iltzeak egiten ditu. 775 T. burdin lantzeko ahalmena du, baina 116 T. baina ez ditu produzitzen, herbesteko produktuen sarrerak kalte egiten diotelako eta erresumako arsenalak ez dutelako erabiltzen lehen aina. 17 langile daude eta bi garraialari. Bestea M. Unzagarena dugu, egoera berdinean aurkitzen zen.

Bestalde Begoñan Hilarion Jose Ugarte industrialak (30 urtetan industrian aritua, jartziatzko (itsasuntzien aparejoak) eta Bizkaiko txokolateria haundienaren jabea) burdin kolatua funditzeko 1830-1831 lan lantegi bat eraiki zuen, 14 langile zuela baina 30ri lan emateko gai zena. Bizkaiko burdin zaharrak, Ingalaterrako lingoteak eta Asturiaseko ikatzaz baliaturik, burdin moeta guztiak egiteko gauza zen. Guztira 700 T. egingo lituzke. Baina beste lantegiak krisialdian zeudenez gero, diru gabe gelditu zen 1832.eko kanpaina martxan jartzeko.

Horrez gainera Bizkaian bazeuden 12 martinete, goldak, iltzeak, eta aipaturiko beste produktuak egiteko, guztira 620 T. produzitzeko gai, 16 langilerekin eta bertoko burdinaz eta egurrikatzaz baliaturik. Aipatu dugun 1836.eko «Guía del Ministerio» Durangon 16-20.000 sartai eta 14.4000 nabar egiten zirela dio. 1832an oraindik bazeuden ainkurak egiteko lantegi bi, Begoñan J. Iturraldearena, bost langilerekin eta bestea Abandon F. Iturraldearena, 3 langilekin. Bizkaiko burdina erabiltzen dute eta Asturiaseko ikatza, baina 1832an ia hondaturik aurkitzen dira.

Hona ba, agiri agirian dugu, 1830.eko urtean jadanik Bizkaian bigarren fusioko lantegi batzu martxan zeudela eta kontutan hartzen badugu 1816.eko urtean Bizkaiko burdinoletan 3.875 T. burdin produzitu zela, 1828an 3.580 T., 1832an 3.800 T. eta 1832an 4.50 *langile zuzen* lan egiten zutela ohizko oletan, ikaskinak eta garraialariak alde batera, bigarren fusioko lantegi hauen garrantzia, *100 langile zuzen* erabiliz, nagusitu egiten zaigu. (13) Jakina oraindik ohizko olak eskalako ekonomia ugariagoak eragiten zituzten, baina pentsatu behar dugu garai honetan kontraesanak nabaritzen hasten direla Bizkaiko siderometalurgikoen artean. Lantegi berrietakoak kexu dira ordaindu behar izaten zituzten zergak zirela eta, Gaztelan sartzerakoan, baina bestalde Ingalaterrako burdina, inolako zerga gabe hartzen zuten. Bizkaiko burdin

(13) «Los vizcaínos en sus martinetes imitan aquella elaboración aunque a precio más costoso, en el día se halla ya en ejercicio una fábrica en el punto de Artunduaga anteiglesia de Basauri, igual a la de los extranjeros en la que se elaboran fierros cuadradillos, cavilla llantas y demás necesarios al uso; y otra igual se esta montando en el varrio de Leguizamon anteiglesia de Chavarri (se referira a Etxabari) y si estas favricas llegan a prosperar sin duda alguna se podran otras a su imitación que relabran la mayor parte de los fierros en bruto que puedan fundir las ferrerías del pays». Gernikan 1831.eko uztailearen 15an, Bizkaiko «favricantes, dueños de ferreias y comerciantes de fierro» sinatua: P. Vildosola, Ybarra Mier y Cia, J.J. Andraca, J. Iturralde, Ant. J. Vildosola, Gravier, A. Ogara, B. Diaz de Mendivil. B.A.J.N. Hierro extranjero, 3 errg., 4 leg., 2 zenb.

totxoaren orde. Halaere lantegi berri batzu dekadentzian aurkitzen zirela adierazten zuten. (Ikus zerrenda bukaeran.)

Karlistadaren ostean, dinamika berean jarraituko gara. J. Leloup, (14) Belgikako funditzaileak Ripan lantegi bat jartzen du, burdina zein kobrea funditzeko eta itsasuntzien premia guztiak produzitzeko. 5.000 T. produzitzeko ahalmena omen du (15) Beraz Bizkaiko haundiena. Ildo beretik Boluetakoa, 1841.eko ekainean, sinatzen da eraikitzeke asmoa, beraz aduanak aldatu orduko. Hasierako kapitala 800.000 errealkoa dugu, eta beste lantegien produkzio berberari ekiteko zen. Herbestetik dakarte tekniko zuzendaria eta 1846an dator aldakuntza, Boluetako sozioek labe garai bat egitea erabakitzen dutenean. 1848an sartu zen martxan eta lehen lantegi integrala dugu, siderurgiako sektorean (16) Lantegi honek etsai deklaratuak izan zituen, jadanik iraultza industrialaren ispilu berria islada guztiz azaltzen baitzen. 1850an penintsulako lantegien artean haundienetarikoa dugu, 210 langile zuela, 5.000 T. produkzio ahalmena, baina demandaren arabera erdia edo pixka bat gehiago baino ez zuen produzitzen. Produktuak : Burdina, alanbreak, karrozen Ilantak, karrozen muellezentat altzairua, tuboak, balaustreak, flejeak... Berezko merkaturia, Penintsula eta Kubakoa zen. (17)

Bestalde 1847an Eugenio Raux eta Domingo Bordaren artean itun bat sinatzen da (18) burdin puntak, buruorrotzak eta karfetak egiteko. Borda Bilboko merkataria eta industrialaria zen, egurraren sailean hain zuzen ere. E. Raux antza denez produkzioaren eskusiba lortu zuen urte batzutan. Baina ez dago elkarren arteko akordio onik, eta Bordak guztia erosten dio, 100.000 errealko ordainduz. 1860an D. Borda Barakaldoko Irauregin, fundizio bat izango du, alanbra produzitzeko.

Azkenik 1854an, Ybarrak eta Ciak Nuestra Señora del Carmen izeneko elkarte sortzen dute, eta 1855an eraikitzen dute lantegia (19) Lehenago 1846.eko urtean Guriezoko labe garaia erosi zuten, Vilallonga eta Dupont partaide zirelarik. Barakaldoko lehen labe garaia egurrikatzaz erabiltzeko zen, eta horrez gainera 8 labe Chenot, nahiko zaharkituak garai haretan. 1865an eraikiko zuten lehen labe garaia cok ikatzaz erabiltzeko. Urte horretan bapozeko 3 makina daude, energia hidraulikoaren orde. Garai batetan 420 gizonetzko eta 60 emakumezko langile zituzten garraialariak aparte, baina 1866an krisialdia zela eta langileen kopurua jeitsirik zegoen. Modu bitan ordainduak ziren: Jornal baten bidez edo destaiura. 16.000 T. inguru burdin

(14) *El Vascongado*, aldizkaria, 1841 .eko otsailaren 26.an, 82 zenbakia.

(15) MADUZ P: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*. T. IV Madrid 1846, 326 Orr.

(16) *Sociedad Santa Ana de Bolueta. Centenario de su fundación*. Bilbao 1941.

(17) *Memoria presentada al Excmo Señor ministro del Comercio instrucción y obras publicas por la Junta calcificadora de los productos de la industria española reunidos en la exposicion pública de 1850*. Madrid (Establec. tipográfico) 1851, 181-183 orr.

(18) B.A.H.P., Isidoro Ingunza, 5795.

(19) *Altos hornos de Vizcaya. Sociedad Anónima Libro del cincuentenario*. Bilbao 1952,44 orr.

produzitzen zuen urtero, eta berau Espainiako merkatura mugaturik dago, eta kexu ziren kontsumoa txikia zelako (20)

Baina 1865.eko urtean Ybarraren buruan Bizkai-Inglaterra ardatzaren eskema nabari da. Asturiaseko siderurgia da gailena estatu mailan, ikatza bertan lortzen baitu. Bilbora berriz Inglaterratik edo Asturiasetik iritxi behar da. Cok ikatzaren aranzel zergen beherapena eskatzen du, argi duelako, Inglaterratik inportatu behar zuela, mearen truke. 1865.eko merkatal balantza honela zegoen:

Exportaz. Inglaterra Frantzia Belgika Guztira
Mea 16.220 19561 161 35.942 Tm

Inportazioa

Ikatza 32.748 (21) Tm

Argi dago ba, siderurgia berriaren oinarriak eta erroak finkaturik zeudela, 1865an. eta orain beste faktore batzuekin batera, garapen berriak inoiz hartu, gabeko abiadura ezagutuko zuela.

Dena dela 1860-1870 urteak nahiko gogorak izan ziren burdingintzarako, Espainiako merkatua kizkurtu baitzen.

Hona hemen 1860an zeuden burdin lantegiak, moeta berrikoak: (22)

Lantegiaren garrantziaren arabera, zerga bat ordaindu behar zuen. Hara, bada, indize zuzen bat elkar parekatzeko.

Abandon:

J A B E A

Fundizioko lantegia, M. Dupont-ena (150 erreal)

Puntak produzitzeko, Saratxu (60 erreal)

Puntak produzitzeko, D. Borda (150 et-real)

Barakaldo

Alanbrezko eta budinezko lantegia Irauregin. D. Borda (200 Err.)

Nuestra Señora del Carmen Ybarra eta Cia (6.400 Err.)

Begoña

Boluetako Santa Ana Jerentea J. Ybarra. (6.400 err.)

Fundizioa bat Joakin Mazarredorena (150 err.)

(20) *Informe sobre el derecho diferencial de bandera y sobre los de aduanas exigibles a los hierros el carbón de piedra y los algodones.* Madrid, T.II Hierros, 1867, 97-108 orr., 287-394 orr.

(21) *Ibidem.* T.I 95-96 orr.

(22) BJAN Guerra de Africa 62 erreg. 1 leg.

Fundizioa tomas Sagarduy-rena (250 err.)
 Fundizioa Legorgeu-ren (150 err.) 1854an sortua.
 Iltzetazko lantegia D. Jauregi (140 err.)
 Burdinezko katreak F. Sorcach (60 err)

Durango

Burdinetaz lantegia Gervasio Jauregi (140 err.)
 Burdinetaz J.A. Sagastizabal (140 err.)

Gueñes

Altzairuzko lantegia (80 err.)

Dakusagunez 1860an «Establecimientos fabriles» kontzeptuaren baitan ohizko olak ez ziren sartzen jadanik. Bestalde moeta guztiko lantegiek 25270 erreal ordainduko zuten, beraz erdia (50,6%) Sta Ana eta El Carmen lantegiek, eta 57,2% burdingintzaren inguruko lantegiek. Horra ba frabika hauen garrantzia Bizkai mailan. 1862an Irauregiko lantegia, D. Bordarena eta 1866an Durangon Gervasio Jauregirena porrot egin zuten salmentarik ez zutelako.

Bukatzeo lehen zati hau azpimarratu nahi dut, bada, 1830an jadanik Bizkaian, giro sozial eta politikoa nahasi bat bizi arren eta ikatz meategirik gabe, burdingintza berri bat lantzeko lantegiak bazeudela eta merkatariak eta industriariak gehiago eraikitzeo asmotan zeuden. Merkatariak besterik ezean, produkzio prozesua zuzenean eskuratu nahiean, industri gizonak bihurtzen doaz, salerosketa soiletik irabazi gutxi lortzen bide zutelako agian. Industri berriak eragiteko herbesteko langileak eta teknikoak kontratatzen dituzte. Boluetako sorrera giro honetan ulertzen da, aduanak aldatu baino lehen. Ondorengo urteetan labe garaiak eraikitzen dira, eta 1860an giro soziala industrigintza berriaz kutsaturik egoten hasten da. Kapitalak merkatariarenak eta ohizko industrialenak dira. 1865an Barakaldon «Coke»-z labe garaiak bitzuten denean, aro berri baten atarian gaude.

Garai honetan Bilboko kapitalista batzu Asturiaseko burdingintzan ere inbertitu zuten: Adibidez E. Victoria de Lecea.

2.— Gaineratiko industriak

Bigarren zati honetan hain ezezagunak diren ekintza industrialak azalduko ditugu, guztien artean kopuru handia betetzen baitzuten eta egoera honek erasten baitzion Bizkaiari, zeukan itxura industrialak. Beste sail hauetan, merkatari arrunten eskuhartzea industria lanetan nabaria izango da. Bestalde artisau soilak ere industrial bihurtzeko aukera zuten sarritan. Jakina «frabika» izena denei ezin zaie erantsi, sail asko artisagintzatik hurbilado daudelako, sistema fabriletik baino.

XVIII mendearen bigarren erdian, industri mota hauek bere gailurra jo zuten, batez ere larru eta itsasuntzigintzaren ingurukoei dagokienez. Ikusi besterik ez dago T. Guiarrek argitaratu zituen datuak (23) *Kobrezko industria*: 1816an balmasedan hiru lantegi, Abandon 1, Basaurin, daude, guztira 400 T, produzitzeko gai. Egiten zituzten galdarak Asturias eta Galiziara bidaltzen ziren, 9 erreal librako kostatzen zela lantegian.

1825eko urtez geroztik ez daude konforme lantegi hauen jabeak, kobrea Riotintotik ekartzera behartuak izatearekin, debekaturik baizegoen herbestetik ekartzea. Balmasedan bakarrik 500 pertsona inguru, industria honen inguruan lan egiteko biltzen dira. Balmasedan jabeak hauek ziren: M. Antuñano, J. Tellitu Antuñano, Antuñanoren alarguna, Garciaren alarguna eta Maria Josefa Urrutia (24).

1838 edo 1840 urtean (25) Galdakanon edo ondoan, Pradera Hermanos y Ciak lantegi bat eraiki zuen kobrezko gaiak egiteko. Ondorengo urteetan itsasuntzien premiei begira produzituko zuen, eta kobrea Riotintotik zekarten.

Julian de Lunak eskeintzen digu kobrezko lantegi baten egitura (26).

1860.eko zerrendan Pradera H.en lantegia Bizkaiko haundienerarikoan dugu. Badago beste bat Arrigorriagan Pantaleon Carreñorenana, eta Balmasedan hiru jarraitzen dute lanean. 1871an, bost lantegi daude Bizkaian kobrea lantzen dutenak, galdarak eginez batipat. Hona hemen ba, nola industria honek protoindustrializaziotik, industrializazio modernoan ere tinko jarraitzea lortu zuen.

Ondoren 1816.eko industriaren berri emango dugu, eta 1828-1832.eko egoera, labor labor.

1816.ean itsasuntzigintzaren ondokoa: Jartziatzko hiru lantegi, Begoñan eta Abandon. Erregearena, besteak M. Francisco Ugarte eta Alejandro Villavasorenak. 28.000 Gaztelako kintal lan egiteko gai, 420 langile erabiliz, baina 1816an 800 kintal eta 13 langile baino ez. Zergatik? Atzerritik merkeago ekartzen delako. Premiazkotzat dute, Errusiako kañamoa, hobe delako eta langileak ez direlako gaizotzen. Kintaleko 17-18 peso kostatzen da. Itsuntzintza ere beheraldian dago.

1816.eko larruzko industria: 11 lantegi daude, 18 edo 20.000 larru prestatu oinetakogintzarako produzitzeko ahalmena dago, baina 10 12.000 produzitzen dira, Gaztelan sartzeko zerga bereziaz kargatuak baitira. 52-56 marabedi librako kostatzen da larruaren landuketa, produktua 51 erreal delarik.

(23) GUIARD T.: Historia del Consulado y casa de contratación de Bilbao y del comercio de la villa. Bilbao V.II 1700-1830, 1914, 562-564 orr.

(24) BJAN, Ferrerías 1 erreg. 5 leg., 2 zenb.

(25) Euskadiren berrehun urte erakusketan 1838an. Berriz Alzolak 1840an ALZOLA P.: «La industria en Vizcaya» in *Progreso industrial de Vizcaya*. Bilbao 1902, 84-85 orr.

(26) LUNA Julián: *Memoria que contiene una estadística sucinta de Vizcaya* Bilbao (Im. N. Delmas) 1842.

Horrez gainera 1816an, Miserikordiako etxean, lurrontziak egiten dira, eta ehungintza ere bai, bertako neska mutilak ikasi dezaten ogibideren bat.

1828.eko eta 1832.eko egoera industrialia: (27) (Bukaeran gaztelaniaz).

Laburrean esan dezakegu, XIX mendeko 30 urte hauetan industria guztiak beheraldian zeudela. Eragin handia zuen, Ebroko aduanetan Erresumako gobernuak ezarritako zerga bereziak eta ondoren Bizkaiko produktuek hiri bakoitzan, berriz, herbestekoak balira moduan ordaindu behar zutena. Larruko industri indartsua guztiz hortatu zen.

Dena dela karlistadaren ondoren, 1840.eko hamarkadan lantegi berriak, frabika sistemaz antolaturik sortuko dira:

Busturian «Fabrica de loza de San Mames de Busturia», 1842an sortua. Buzturikoak eta Bermeoakoak ziren sozioak, senitartekoak: Bulukua eta Txirapozu. Nekazal errenten jabeak eta hirietako etxeenak ere. Lurrezko ontziak egin nahi dituzte baina finak eta miloi bat erreal inbertitzen dute (28) Ondorengo urteetan, A. Orbegozo merkataria gero Bilboko bankoaren lehen zuzendaria izango dena, sartuko da. Teknikoak eta langileak Frantziatik ekartzen dituzte. Baina porrot egin zuten, eta 1862an lantegia itxi egiten da. Hona hemen haundiki ilustratu batzuen jarrera industrialista, nekazal errentak industrian antz bideratzen.

Abandoko La Peña auzoan, 1844an, «Fabrica de cristaleria Nuestra Señora de la Piedad de Ybaizabal» sortu zen, Candido Gandariatz, P.J. Aransolo, P. Goyoaga, A. Garaygorta, B. Galdakano, C. Zabala promotereak zirela. Bakoitzak 20.000 erreal jarri zituen, eta Bordeleko bidriozko frabikante bat ekarri zuten, J. Agricola Fauchard. Baina konforme ez, eta 1846an teknikoa kaleratu, inberzio berria egin, 120 akzio 5000 errealekoak, guztira 600.000erreal, eta martxan jartzen dute. Kristalezko botelak, edanontziak eta beste gauza batzu produzitzeko zen. Baina berriz ere porrotketan erortzen da, eta 1855an Violete hermanos etxe komertzialak 47% akzioak bereganatzen ditu. Luis Violetek zuzenduko du oraingoan lantegia, inberzio berriak eginez eta bi miloira iristen da kapitala. Baina oraingoan ere ez du zabalkunde haundirik lantegiak. 1864an, porrot egiten du, Bilboko alkate delarik L. Violete. (29). 1865.arte martxan jarraitzen da merezienten bidez, baina azkenean produkzioa gutxitzen da minimoetara, langileak kaleratuak dira, Bilboko bankuak kredituak eman zizkion lantegiaren gainera. Gastu haundienak, Asturiasko ikatza eta langileen soldatak ziren. Badirudi komertzializazio

(27) BJAN, Diputación general 188 erreg. 1828.eko eta 1832.eko datuak elkartzuz burutu dugu ematen dugun taula.

(28) BARAÑANO K.: *La obra pictórica de Jose Maria de Ucelay. Análisis biográfico y estético*. Bilbao 1981, 189 orr. APRAIZ A.: *La cerámica de Busturia (Vizcaya)* Valladolid 1952.

(29) Violete hermanos elkarteak, bestalde miloi bat erreal inbertiturik zituen Bilbao-Tudelako trenbide konpianian. Beharbada honen krisialdiak ere bere eragina izango zuen elkarte eta lantegiaren hondamendian. BAHF, Félix Uribarri, 3.727, Victor Luis Gaminde 5.311 Korrejimenduko artxiboa, 55 leg. 12 zenb.

zer	Zenbat	Herria	Jabea	Zuzendaria	Langile kopurua		Lehengaiak: jatorria	Makinak eta erabiltzen duten energia	
					Egun	Gai da			
Larrua	2	Arrigorriaga	Geldirik M. Barrenechea.	F. Sopelana.	6	15	Ugelak egiteko larru indioak. Behia, arittoa. Behien eta ahuntzen larrua. Larrua Amerikatik, Hamburgotik eta Bizkaiko herrietatik iristen da: Lantzeko behar da. Gaztainondo. aritz eta pagoen azula, bertokoa, balearen grasa Noruegako, karea eta txerrien manteka, Bizkaia eta Holandakoa, Kola eta hauts beltzak, atzerrikoak.	Errota bat eta mandoa.	
	5	Abando	P. Ruiz. F. Markaida. Isabela Canedo. Geldirik. Geldirik.	Smith alarguna. Edo Bernardo Zarate. Berbera. Leon Soloaga. José Puente. J. Garay.	4 7 6	12 18 12		Errota bat eta mandoa. Errota bat eta mandoa.	
	9	Begoña	Marques de Bargas. M. Barrenechea. Lekerika alarguna. Bernabe Díaz de Mrndivil. J. Garay. — B. Mariaka. Lekerika alarguna. Geldirik.	— S. Gorozika. Smith alarguna. J. B. Dermit. B. Uralde. J. M. Alkegi. S. Gorozika. Jose Osa.	— — 6 6 3 2 7 2	— — 14 12 6 6 28 5		— — Errota bat eta mandoa. Errota bat eta mandoa. Errota bi. Errota bat.	
	2	Asua	J. A. Amezcary. J. A. Amezcary herederoak.	Berbera. —	4 —	12 12		Errota bat.	
	1	Erandio	Pascual Felipe Ardanz.		—	16			
	1	Bilbo		M. Arana.	6	10			
	20	txiki Bizkaitik zehar			30	60			
	Orotara:	40				87		238	
	Oztopoak desagertuko	balira, 24.000	ugel, 40.000	behiarenak eta 14.000	auntz larru landuko lituzketela,	adierazten da 1832an			
	Zura	1	Basauri	Celestino Mazaredo.	Berbera.	1			Pinua, kaoba eta moeta guztiak: Amerika, Espainia, Frantzia eta atzeritik Berdin, eta baita ere luzera haundiko egurrak.
	2	Abando	Domingo Borda.	Berbera.	3		Makina bi: Burpil haundi batek, urak eraginda 5 zerra martxan jartzen ditu. D. Bordak berak egina.		
Orotara:	3				4				
Papera	1	Abando	Simon Joaquin Arriaga.	Berbera.	21 26 21	gizon neska emakume zahar	Trapoak, ahotza olio, ikatza. artilea, hilobala, brontze, burdin modeak, hirina, karea Atzeritik: Almidoia tela metalikoa. kromoa. goma arabiga hauts beltzak eta abar.	Zilindroak urak eraginda. Paperak enkolatzeko sistema berezia.	
Ogia	1	Begoña	Bilboko hiria.	Batzorde bat.	50		Caria.	Zilindro bi, ibaiko urak eraginda.	
Gaileta	1	Bilbo	Fco. Berge.		23tik	50ra	Caria.		
	1	Portugalete	Guillermo Uha-gón.	Blas Lejarzegi.	8tik	10ra	Caria.		
	3	Bermeo	Batzuek.		11		Caria.		
Orotara:	6				92				
Jartziak	1	Abando	Erregerena.	—	—				
Itsasuntzigintzarako	1	Abando	Bergaretxe eta Villabasoren hered.	Eladio Villabaso.	—				
	1	Begoña	Hilarion Jose Ugarte.	Berbera.	4 Lehen, 200	1775an	Kañamoa eta alkitrana Castillatik eta Frantzia	Ohizko tresneriatik aparte, alkitranatzeko makina	
Orotara:	3				4				
Txokolatea	1	Begoña	Hilarion Jose Ugarte.	Berbera.	2 tik	4ra	Azukrea, kakao eta kanela, Habana, Guayaquil, Caracas, Ceilan, China.	6 errota zaldiak eraginik.	
	1	Abando	Valenti Maruri.	Berbera.	2 edo	3		2 errota.	
	7	Bilbo	Merkatari txikiak		14 tik	21ra		Eskuz.	
Orotara:	9				18				
Arraunak	1	Begoña	Garro alarguna.		3		Pagoa.	Eskuz.	

Hala ere aipatu behar dira, kostaldeko eskabetxerriak, eta Bilbo edo Durango moduko hirietan kokatzen zena artisautgintza: Ehungintza, sonbrerogintza, keramika eta abar.

Urteko produkzioa			Prezioak	Egoera
Ugelak «corregel»	Ahuntz	behiarena		
800		1.500	Ugelak: 4,75-5,5 Libra. Behiarenak: 8 err. Astoarenak: 10-12 err. Ahuntza: 12 err.	Denentzat larria: Zergak ordaindu behar dituztelako Ebroko aduanak igarotzerakoan.
1.500				
600				
1.400		400		
800	400	400		
—		—		
—		—		
800		400		
	1.200	1.200		
350		300		
250		300		
1.608		400		
		200		
600		—		
—		—		
	1.300	1.308		
	3.000	6.000		
7.200	5.900	12.200		
Lodiera guztietako zura: Txapak, muebleak egiteko. Lodiera guztietako zurak, finak batez ere mueblentzat.			Kaobazko txapa, oin kuadrata, 1-2 err.	Gai dira Jaurrertiko demanda asetzeko eta erresumara saltzeko, baina errekgaturik daudenez gero aduanetan, urte osoan ez dute lanik egiten.
8.008 «resmas» papera. 600 arropa kartoi. 200 «paper naipeak egiteko».			— Trapu eta ahotzko paper zuria 18tik-140ra «resma» ko. — 28tik-112 erreal kartoi arropa.	Txarra Gai da doblea produzitzeko baina zergak ordaindu behar erresuman sartzeko.
1,5 miloi libra ogi. 912.500 libra ogi. 182.500-225.000 libra ogi. 292.000 libra ogi.			— 12tik-18 ra arropa, naipeak egiteko, Araban, 16tik 32 madaberi, librako.	Ederki. Nahiko ongi Txatra.
Geldirik. Lehen 12.008 kintale. Ezer ere ez, baina gai da 4.000 kintale egiteko. 12.000 kintale jartzia egiteko gai da			200 erreal jartziako.	Larria.
10.508 kintale 1.095 kintale 2.555			3tik-10 err. librako.	Txarra, erresuman sartzeko ordaindu behar.
10.000 urtean			Gutxitu.	Txarra, nabegazio egin dela

egoki baten premian aurkitzen zela lantegia. Oztaz ozta jarraituko zen, zorrak ordaindu arte.

Hona ba da industri biren bilakaera berdin xamarra.

